

a u z o z a u z o

herrera

Sporting kirol elkartearen emaitzak

1976-1982 urte

bitartean jaiotako gazteei deialdia zabaldu die Herrerako Sporting Kirol Elkarteak iganderako, uztailaren 3rako. Futbolera jokatu nahi duten gazteek igandean goizeko 11etatik aurrera Herrerako futbol zelaiara hurbildu beharko dute Sportingnean jokatu nahi izan ezker. Hori bai jokalaria bakoitzak entrenamendu erropa eraman beharko du.

Mendi-Zaleak mendi elkarteak kaleratu du jadanik bere aldizkariaren azken zenbakia.

Donostia inguruko mendi elkarten irteerak proposatzen dira. Nobedade modura, «*la gran travesía*» deituriko joku berria kaleratu dute, bertan, pista batzuren bitartez hainbat leku asmatu behar dira. Oraingoan, Monastegi baten izena asmatu behar da pista ezberdinak jarraituz.

herrerako Sporting Kirol Elkarteak jadanik amaitu du aurtengo denboraldia. Bertan jokatzeko duten gazte eta jokalariek entrenamendu zein futbol partiduetan eman beharrekoa eman dute eta udaran merzitako oporrak hartzeko aukera izango dute.

Dena den, azpimarratu behar da aurtengo futbol txapelketan, Sporting Kirol Elkarteak bere historiako ondorio hobereak izan dituela.

Halaber, Kadete Txiki mailako finalean, Erreala irabazteko gauza izan ziren eta honek erakusten du jokalaria, tekniko, zuzendari, zaletu zein laguntzaileen lanek asko lagundu dutela eta eragin zuzena izan duela azken ondorioetan.

Denboraldian izan dituzten emaitzen artean



Sporting Kirol Elkarteko kirolariek emaitza onak lortu dituzte denboraldian honetan zehar.

hauek aipa daitezke:

Jubenilak Ohorezko Liga hirugarren geratu dira. Bigarren B Jubenilek hirugarren postua lortu dute eta honela Lehenengo Jubeniletara igoko dira. C mailako jubenilek berriz, seigarren postua lortu dute eta Gipuzkoako kopa jokatu dute. Ohorezko Kadeteen kasuan laugarren pos-


tuan geratu dira eta bigarren Kadeteak bostgarrenak.

Kadete Txikiak berriz, Liga irabazleak izan dira. Txikien mailetan Ohorezko Infantiletan bigarren postua lortu zen eta eskola mailako infantiletan hirugarren postua.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfn. 39 12 67)

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

Atsendenetxe, edertasunetik hondamendirira

Hego Intxaurrendok lehen aldiz festak estrainatzen ditu. Hauek, uztailaren lehen hiru egunetan izango dira, Intxaurdi, Bustintxiki eta Emakume Elkarteak antolatuta. Beste ekintzen artean, haur lehiaketak, filme proiektzioa eta haur berbenak izango dira. Ekintzak Felix Gabilondo polikiroldégian egingo dira.

Kultur Etxeko Liburutegian udako ordutegia jarri da martxan ekainaren 27tik irailaren 10era bitartean. Asteleheneretik ostiralera goizeko 10etatik ordubietara egongo da zabalik eta abuztua osoan zehar itxita egongo da.


Monseko San Juan jaiean barruan, inguruko biztanleen kexak egon dira musika zela eta. Auzokideen iritziz, gau eta egun musikaren tonua baimendutakoa baino altuagoa izan da eta gaueko ekintzak, iragarritako zegoena baino gehiago luzatu dira.

Garai batean edertasuna eta handitasuna nagusi baziren ere, Atsendenetxe etxearen egungo egoera ez da hau. Dagoeneko badira 15 urte baino gehiago erortzeko egoera tamalgarrian dagoela.

1906.ean eraikia, bere gain urte askoren zama darama. 50. eta 80. hamarkada bitartean Aleman eskola izan zen eta auzoko zaharrenak hala gogoratzen dute. Ondoren, 80. hamarkadaren hasieran, Udalaren eskuetara pasatu zen. Ordutik hona, zenbait sute jasan ditu eta bere egoera okertuz joan da, egungo egoera penagarria iritsi arte.

Auzokideek, Atsendenetxe inguruan ibiltzea arriskutsu ikusten dute, haize gogorren batek teitua bota baitezake.

Udalaren aldetik, zenbait proiektu sortu ziren: 1988an aterpetxe proiektu bat plazaratu zuen. Garai hartan auzokideek auzoko ekipamendu gisa errebindikatu zuten, auzoko zenbait elkartek topalekua behar zutela eta. Hala ere, ez bata, ez bestea ez ziren



aurrera eraman. 1991ean hauteskunde kanpainan PSOE-EEK Atsendenetxeren konponketaz hitzegin bazuen ere, hitz hauek hutsen geratu dira.

Plan Orokorrean Atsendenetxeren etorkizunerako ez da barrikuntzarik aurreikusten. Horrela, Zulo-Zahar Urbanismo Batzordeak alegazio bat aurkeztu du honen inguruan: jubilatuen etxearen egoitza

izan dadin. Egungo jubilatuen etxean 400 bazkide baino gehiago dira eta lokala txikia geratu zaie. Oso leku egokia da 3. adinakoentzat, gaztainondo, zumar eta magnolio artean pasia bait daiteke.

Intxaurrondo Zaharreko txoko zoragarri honekin zer gertatuko den etorkizunak esango digu.

NAGORE IRASTORZA (Yfnoa.: 285749)



• **Apalategia**

• **Ekipamendu komertziala**

Kolon pasealekua 23,

☎ 27 63 96

DONOSTIA